

75 AÑOS COMPARTIENDO FUTURO

MAGNA MAGNESITAS NAVARRAS

# 75 urte aberastasuna eta enplegua sortzen, mineral bikain batekin

Compartimos **FUTURO** • ETORKIZUNA partekatzen dugu


MAGNESITAS NAVARRAS

- **Erreferentzia gara mundu-mailan,** MgO-an oinarritutako produktuen fabrikatzaile independente eta bertikalki integratu gisa: “Meatzetik azken bezeroarenganaino".
- **Lehengaien geure metakinak ditugu eta fabrikatze-lineak,** hartara, gure azken produktuen kalitatearen fidagarritasuna eta trazabilitatea **bermatuz** gure meatzearen eta lantegiaren bidez, epe luzerako ikuspuntu batekin.
- Elkarlan estuan aritzen gara gure bezeroekin **produktuak optimizatzeko.** Balio erantsi handia eskaintzen dugu, adibidez, altzairugintzan, gure talde teknikoen eta aplikazio-makinen bidez.
- **Magnesitas Navarras** enpresaren bezeroen erreferentziazko zerrendak barne hartzen ditu bere jarduera-merkatu nagusian, merkatu siderurgikoan, altzairugintzan mundu osoan liderrak direnak.

## PRINTZIPIOAK

Ongarrien ekoizle europar handiena den Roullier taldearekin bat etorriz, hartzen ditugun erabakiak eta gure eguneroko praktika profesionala honako printzipio hauetan oinarritzen dira:

- ERRESPETUA
- ERANTZUKIZUNA
- OSOTASUNA

## BALOREAK

- GARAPEN IRAUNKORRA
- INGURUMENAREN BABESA
- BERRIKUNTZA ETA BIKAINTASUNA
- SEGURTASUNA
- GIZARTE-ERANTZUKIZUNA ETA KOMUNITATEAREKIKO KONPROMISOA...

## ZUBIRI

EGOITZA NAGUSIA

INSTALAZIOAK

**2**
MINA

**1**
FABRIKA

**FILIALAK**
KANADA, EEBB, MEXIKO

## ADIERAZLE NAGUSIAK

### JARDUERA

**+1M€**
I+G+b arloko urteko inbertsioa

**260.000 TM**
Ekoizpena/urtea

**+20**
BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK UNIBERTSITATE ETA ZENTRO TEKNOLOGIKOEKIN

**88,5**
M€
Facturazioa

**60**
HERRIALDE
Esportazioa

### ENPLEGUA

**275**
PERTSONAK
Filialak barre

**226**
PERTSONAK NAFARROAN

**43**
URTE
Taldeko batez bestea

**12**
URTE
Batez besteko antzinatasuna

### INGURUMENEKOAK

**3.000.000€**
Zaharberritze Plana

**30%**
LEHENERATZE-PLANA EUGI EXEKUTATUA

**15.000**
ZUHAITZ
Landatuak

### KOMUNITATEA

**15,5M€**
EROSKETAK
Tokio hornitzaileei

Magnesita **mineral urria da Europan,** eta erabat nahitaezkoa eta ordezkaezina zenbait sektore garrantzitsu eta estrategikotan, besteak beste:

- **altzairugintza:** adreilu eta mortero erregogorrak fabrikatzea, altzairuaren fusio-labeak babesteko.
- **animalien elikadura:** magnesioa funtsezko makrominerala da izaki bizidun guztien hazkunde eta garapenerako.
- **landareen elikadura:** ongarriak eta lurzoru azidoen zuzentzailea.
- **ingurumena:** hondakin-uren tratamendua, metal astunengatik kutsatutako lurzoruen erremediatzea eta gasen desulfurazioa.

Oso gogoan izan behar dugu, magnesita mineral urria izanik Europan (munduko erreserben %6) eta funtsezkoa zenbait sektore estrategikotarako, **mundu osoko erreserba gehienak (%66) eta ekoizpen handiena (%70) Txinan, Errusian eta Ipar Korean daudela.**

# Meatzaritza jasangarria, konprometitua

- **75 urteko** historia izanda eta jasangarritasunaren abordatze integral baten bidez, herritartasun korporatiboaren eredu onena izatea da gure asmoa.

- Motor industriala gara, lan egiten dugun bailaretarako **aberastasuna eta ongizatea** sortzen duena, eta modu erabakigarrian laguntzen duena haien aurrerabidean.

- **Baliozko zerbitzua** ematen diogu komunitateari, eragin positiboak sortuz gure **aztarna soziala** irudikatzen duten lankidetza-programekin.

- Gure prozesu eta produktuetan **I+G+b**-aren aldeko apustu etengabe eta erabakia defendatzen dugu, **baliabideen aprobetxamendu arrazoizkoa eta eraginkorra lortzeko jardunbide onenak** eta modernoenak gauzatuz.

Ingurumen-inpaktua minimizatzean lan egiten dugu, gure **Ingurumen Kudeaketarako eta Energia Eraginkortasunerako Sistemaren** bidez gure lantegian, eta bai eskuragarri dauden teknika onenak aplikatzearen bidez ere; etorkizuneko belaunaldientzat ingurumen-ondare onena bermatzen duten **lehengoratze eta birgaitze** optimoak ziurtatuko dituzten teknika onenen bidez, hain zuzen.



Eugiko urtegia (Iruñeko edateko ura)

# ETORKIZUNARI BEGIRATZEN DIOGU

# Meatzaritzako plan estrategikoa

Egun, Magnesitas Navarras enpresak bi meatze-ustiategi ditu baimenduta eta jardunean: bata Eugin dago (Nafarroa) eta “**Kintoa** (130 maila)” izena du; eta bestea Sorian (Borobia) dago eta “**San Pablo**” esaten zaio.





Nafarroako gure ustiategietan (Eugi) **hamarkada honetan ahituko diren** mineral-erreserbak edukita, gure xedea eta betebeharra da gure enpresaren jarraipena ziurtatu eta bermatzea Foru Komunitatean, **hurrengo 25 urteetarako meatze-erreserba nahikoak finkatuko dituen ustiategi berri bat zabalduta.**

- 2000. urteaz geroztik, Eugikoa ordeztuko duten hobien zenbait aukera aztertu ditugu, **500 zundaketa inguru egiteko 6,5 milioi euro** baino gehiago inbertituta. Zundaketa horietan, **50.000 metro lineal lur** baino gehiago erauzi ditugu, gure jardunari jarraipena emateko bidea emango dion magnesitaren bila.

- **Nafarroan jarduten jarraitzeko eta enplegua bermatzeko aukera bakarra da:** mineral klasikoko **11 milioi tonatik gorako** proiektua, gure jarduera **gutxienez 20 urtean** bermatuko lukeena.

- 1945az geroztik Magnesitas Navarras enpresak dituen meatze-erreserbak eta -eskubideak gauzatu eta martxan jartzea dakar.



**EGUNGO EGOERA:** Proiektua, Lehengoratze-plana eta Ingurumen-inpaktuaren azterketa amaitzetik gertu, Nafarroako Gobernuak zehaztutako irismeneko dokumentuaren arabera egina.

# "Artesiaga" proiektuaren ildo nagusiak

1. **Azterketa zehatza,** eta amaitua jada. Egiaztatu da **EZ dagoela** meatze-baliabide ustiagarririk Natura 2000 Saretik kanpoko guneetan.

   **EGUNGO MEATZEA HEDATZEA:**
   Azterketa honen esparruaren eta analizatu diren aukera desberdinen barnean, egungo meatzearen –"Kintoa (130 maila)"– luzapen berri bat planteatzeko gune bat ikusi da, egungo ekoizpen-erritmoetan, lauzpabost urtean jardunean aritzeko potentziala duena.

   2021ean, egungo meatzea hedatzeko administrazio-izapidetzea hasi da, "Rafaeles" esaten zaion proiektua, hartara, proiektura trantsizio astitsua bermatzeko.

2. 2003an egindako proiektu **OSOA berriro planteatzea,** meatze- eta industria-balioa sortzea eta ingurumena babestea bateragarri eginez.

3. Azken 14 urteetan **Aldude Batasuneko Garrantzizko Lekuaren bilakaerari buruzko azterketa,** hiru alderdi hauetan: gizartea, ekonomia eta ingurumena.

4. Eugin, "Kintoa" ustiategian, **lehengoratzean bikaintasun-maila** bat inplementatzea, Artesiagako etorkizuneko LEHENGORATZE PLANA diseinatzean eredu moduan balioko duena.




**Biodibertsitatea Hobetzeko Plana, “Kintoa” lehengoratzeko**

**Diagnostikoa egin eta aztertu ondoren:**

- Egindako lehengoratzearen emaitzak
- Erabilitako lurzoruak
- Jar daitezkeen landaredi-serieak (altuera, orientazioa)

[75 urte - Biodibertsitatea “Kintoa”]




75 urte - Biodibertsitatea “Kintoa”

**Jada hasita dauden lanak hauek dira:**

- Lehengoratu beharreko ekosistemen kopurua handitzea
- Aurrekoetako bakoitzean sartutako landare-espezieen kopurua handitzea
- Aldameneko ekosistemekiko antzekotasuna handitzea
- Landatzeko moduaren naturaltasuna hobetzea
- Landare-espezieen dispertsio-metodo naturalak ezartzea
- Egindako jarduketen eta etorkizunekoen errendimenduak eta arrakasta hobetzea
- Animalia-espezie desberdinak hartuko dituzten guneak prestatzea (kiropteroak, anfibioak…)




# Artesiaga Proiektua

**Ustiapenaren segida**

# Ustiategiaren elementuak

- **Bi hutsune edo meatoki**
  Iparraldeko Meatokia eta Hegoaldeko Meatokia
- **Bi hondakindegi**
  Iparraldeko Hondakindegia eta Hegoaldeko Hondakindegia
- **Tratamendu-planta eta instalazio laguntzaileak**
- **Bideak, arekak eta dekantazio-putzuak**

Ustiategiaren perimetroaren barnean (hesituta), aldatu gabe geldituko dira zerrenda perimetral bat eta zenbait gune zabal edo uharte.






# Okupazioaren eta itzultzearen segida

**1. FASEA**

## Prestatzea

- O urtea.
- Bideen egitura nagusia (sarbide nagusia, planta, Iparraldeko Meatokia eta Hegoaldeko Hondakindegia) eta planta.
- Minerala desestaliko da Iparraldeko Meatokian.
- Esterila Hegoaldeko Hondakindegira eramango da; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin.

**2. FASEA**

## Hegoaldeko Hondakindegia bete eta ixtea

- 1. urtetik 5.era.
- Minerala erauziko da Iparraldeko Meatokian.
- Esterila Hegoaldeko Hondakindegira eramango da, bete arte.
- Une horretatik aurrera, Iparraldeko Hondakindegira eramango da; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin.
- Hegoaldeko Hondakindegia lehengoratzen amaituko da.

**3. FASEA**

## Iparraldeko Hondakindegia betetzen amaitu eta lehengoratzea

- 6. urtetik 12.era.
- Minerala Iparraldeko Meatokitik erauziko da.
- Esterila Iparraldeko Hondakindegira eramango da, bete arte.
- Iparraldeko Meatokia amaitu aurretik, Hegoaldeko Meatokiko minerala desestaliko da.
- Une horretatik aurrera eta amaiera arte, Iparraldeko Meatokira eramango da, betetzeko; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin.
- Iparraldeko Hondakindegia lehengoratzen amaituko da.

**4. FASEA**

## Iparraldeko Meatokia betetzen amaitu eta lehengoratzea

- 13. urtetik 22.era.
- Iparraldeko Meatokiko gainerakoa betetzea, osatu arte.
- Iparraldeko Meatokia lehengoratzen amaituko da.
- Hegoaldeko Meatokia lehengoratuko da (hutsuneari eutsiko zaio).




**5. FASEA**

## Birgaitzeko azken etapa

- 23. urtetik guztiz lehengoratu arte.
- Plantaren eta sarbideen ingurua desmuntatu eta lehengoratuko da.
- Jarduerak ukitutako guneak larre-moten mosaiko baten bidez lehengoratuko dira, eta egun daudenen antzekoak izango dira.
- Haiei gehituko zaie pagadi-gune txikiren bat eta amilburu moduan birgaitutako Hegoaldeko Meatokia.

# Okupazioaren eta itzultzearen segida

**1. FASEA**

## Prestatzea

- O urtea
- Bideen egitura nagusia (sarbide nagusia, planta, Iparraldeko Meatokia eta Hegoaldeko Hondakindegia) eta planta
- Minerala desestaliko da Iparraldeko Meatokian
- Esterila Hegoaldeko Hondakindegira eramango da; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin

Bideak
Planta
Hondeatzea
Betetzea



MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS

# Okupazioaren eta itzultzearen segida

**2. FASEA**

## Hegoaldeko Hondakindegia bete eta ixtea

- 1. urtetik 5.era
- Minerala erauziko da Iparraldeko Meatokian
- Esterila Hegoaldeko Hondakindegira eramango da, bete arte
- Une horretatik aurrera, Iparraldeko Hondakindegira eramango da; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin
- Hegoaldeko Hondakindegia lehengoratzen amaituko da




- Bideak
- Planta
- Hondeatzea
- Betetzea
- Lehengoratzea

# Okupazioaren eta itzultzearen segida

**3. FASEA**

## Fin relleno y restauración escombrera norte

- 6. urtetik 12.era
- Minerala Iparraldeko Meatokitik erauziko da
- Esterila Iparraldeko Hondakindegira eramango da, bete arte
- Iparraldeko Meatokia amaitu aurretik, Hegoaldeko Meatokiko minerala desestaliko da
- Une horretatik aurrera eta amaiera arte, Iparraldeko Meatokira eramango da, betetzeko; hasieratik lehengoratuko da, atzerapen txiki batekin
- Iparraldeko Hondakindegia lehengoratzen amaituko da



MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS

# Okupazioaren eta itzultzearen segida

**4. FASEA**

## Iparraldeko Meatokia betetzen amaitu eta lehengoratzea

- 13. urtetik 22.era
- Iparraldeko Meatokiko gainerakoa betetzea, osatu arte
- Iparraldeko Meatokia lehengoratzen amaituko da
- Hegoaldeko Meatokia lehengoratuko da (hutsuneari eutsiko zaio)



# Artesiaga proiektua: ustiatepenaren seguida

## Okupazioaren eta itzultzearen segida

**5. FASEA**

### Birgaitzeko azken etapa

- 23. urtetik guztiz lehengoratu arte
- Plantaren eta sarbideen ingurua desmuntatu eta lehengoratuko da
- Jarduerak ukitutako guneak larre-moten mosaiko baten bidez lehengoratuko dira, eta egun daudenen antzekoak izango dira
- Haiei gehituko zaie pagadi-gune txikiren bat eta amilburu moduan birgaitutako Hegoaldeko Meatokia



- Bideak
- Planta
- Hondeatzea
- Betetzea
- Lehengoratzea
- Azken egoera

Eskerrik asko zuen arretarengatik

75 AÑOS COMPARTIENDO FUTURO
MAGNA
MAGNESITAS NAVARRAS

Kontaktua: magna@magnesitasnavarras.com